

B9

San Donato jauna...

Dirudienez, poema honen abiapuntua da neskak ez duela mutilaren aurrean agertu nahi. Mutil maiteminduak, lehendabizi, 1-4 bertso-lerroetan, San Donatori eskatzen dio bere maitea agerrarazteko; gero, 5. bertso-lerrotik aurrera, neska maiteari berari zuzentzen zaio, izen-deiturak (Maria Hernandez) erabiliaz. Etsiak harturik diharduen maitalearen ohiko jarduna agertzen da hurrengo lerroetan: ager zaitez eta sinesiez zazu nik daukadan guztia ona dela zuretzat.

Aipagarria iruditzen zaigu B8 poemaren eredu metriko bera izatea (bakoiti guztiak sei silabako libreak eta bikoitiak bost silabakoak, *-ia* errimarekin, distiko-segida osatuaz), jakinik B8 Martin Lopez Bikuñaren eskuak idatzia dela, eta hau, berriz, Lazarragaren eskuz idatzia.

<1173v> San Donato¹ jauna,
doneachia,²
eracustac neure
onerechia.
Arren, aguir çatez,
içar çuria,
beyn³ Hernandez da⁴
guero Maria,⁵

5

¹ *San Donato*: Ez dakigu San Donatoren batek lotura berezirik ote zuen Lazarragaren bizitzarekin edo geografiarekin. Gaur, inguru hartako San Donatorik ezagunena Beriain mendikoa da, jakina, Arezzoko apezpikuaren omenez eraikitako baseliza baitauka tontorrean, gutxienez 1642az geroztik. Baina Lazarragaren inguru geografikotik are hurbilago ere badira *San Donato* izeneko toponimoak, Barrundiako udalerrian bertan, Aldaia mendiaren barrenean, mendebaldean (*San Donato*) eta hegoaldean (*Barranco de San Donato*). Audikanan San Donato izeneko baseliza izan zen XVIII. mendearen erdialdera arte.

² *doneachia*: Ez dugu arkitu inon hitz honen beste lekukotasunik. Euskal fonetika historikoko legeen arabera, *donebatxia* hitzaren eboluzioa izan liteke, hots, ‘done bateatzailea’, baina inon ez dugu aurkitu bateatzailearena San Donatoren epiteto gisa.

³ *beyn*: ‘lehenik’.

⁴ *da*: ‘eta’.

⁵ *beyn Hernandez da / guero Maria*: Patri Urkizuk dioenez (Urkizu 2004: 190), Maria Hernandez “Ladrón Velez eta Maria Fernandez de Lazarragaren prima zen, eta Maria Ladron Barriako mojarren ahizpa”.

acabadu eztidin	
ene bicia.	10
Ez nigana iramo ⁶	
ceure guecia,	
sinis eçaqueçu ⁷	
ene eguia,	
noxpait ⁸ irecaçu ⁹	15
ceure beguia.	
Çuretaco nic daucadan	
guztia ¹⁰	
ezta mincor, ¹¹ salvo ¹²	

1205v orrialdean, “Nombres cifrados” izenburuean, beste emakume-izen batzuekin batera, hau ere badator, osorik, zifraturik eta monograma bidez.

⁶ *iramo*: ‘jaurtiki’; eskuizkribuan beste toki batzuetan ere agertzen da, lau aldiz (AL: 1140r, AL: 1142r, A23: 65 eta B9: 11). *OEhk* ez dakar forma hau, baina bai *iramon*, Landucciren lekukotasunarekin; Landuccik *yramon* dakar “esparzir”, “derribar” eta “botar (la pelota)” sarreretan.

⁷ *sinis eçaqueçu*: ‘sines ezazu (geroan)’. Geroaldiko agintera oso ohikoa da *Refranes y Sentencias* bizkaierazko atsotitzen bilduman (*çe eyquec maurtuti hoeaneâ, eder eztanic calean RS 36, Gach çe erexqueoc yñori, ta emac vereâ edoceyni RS 312*), eta aztergai dugun Lazarragaren testuan: *ce eucaiqueçu* (A27a: 24), *sinis eçaqueçu / ene eguia* (B9: 13-14), *Jentil onbrea, ona çatozque, / gura banoçu gozadu* (B12: 11-12) eta *arren, aguir çaytesq[ue]* (B28: 3). Bizkitartean, ez dirudi soilik mendebaldeko euskararen ezaugarria izan denik, gipuzkera eta lapurtera zaharrea (Etxeberri Ziburukoa eta Etxeberri Sarakoa) ere biltzen baitira gisa horretako formak. Bestalde, aditz erroaren forma aipagarria da, nahiz eta ez den bakarra, testuan *eucaiqueçu* (A27: 24, A28: 155), *eucaiteco* (A28: 119) eta *baneucaique* (B20: 15) biltzen baitira.

⁸ *noxpait*: ‘behingoz’; dirudienez, “noizbait” (*noxbait, noxbayt, noxpait*) bi zentzuekin erabiltzen da Lazarragaren eskuizkribuan: ‘behingoz’ (lau aldiz) eta ‘egunen batean’ (behin, A8: 6). ‘Behingoz’ zentzua dutenetan (AL: 1146r, A17: 88 eta B9: 15) aginterazko aditz-formak dituzte beti ondotik, eta horietako batean (*noxbait-noxbait*, AL: 1146r) errepikapen indargarria (halakoetarako cf. Agirre Asteasukoaren adibideak, 1808 ingurukoak, *apud OEH*: “*Idiki itzatzu bada noizbait-noizbait, kristaua, zure begiak*. AA III 349. *Noizbait, noizbait asitzera noa [...] kristau aziai dotrina azaltzen*. Ib. 399”).

⁹ *irecaçu*: ‘ireki ezazu’.

¹⁰ *Çuretaco nic daucadan / guztia*: Bi lerro hauetako silaba-kopuruak ez datoz bat poema honetako gainerako bertso-lerroetakoekin: 8+3, eta ez 6+5.

¹¹ *mincor*: ‘garratz, samin’. Artikulurik gabeko adjektibo predikatuak arruntak dira XVI. mendeko euskal eremu guztietako testuetan (cf. *çe eyquec maurtuti hoeaneâ, ederr eztanic calean* (RS 36)), gaur egun ekialdeko ezaugarritzat baditugu ere. Lazarraga eskuizkribuak ere baditu halakoak: *gazte cirean artean* (A11: 17), *Çu serviceco andi dot deseoa* (A17: 47), *On içango nax* (A26: 137), *cerren çu ederr içanagayti* (A27a: 43)... Adjektibo predikatu artikuludunak ere badira eskuizkribuan, *Oraingaño gaztea ax ta* (A19: 15) eta *Oy çu ederra içan ez arren* (A27b: 21), adibidez. Kasu honetan pentsa genezakeen ezeztapenak eragina izan zezakeela forma artikulugabearen aldeko hautuan, baina beherago datorren *ezta gacia* (B9: 24) ere aldagai beraren menpean da, eta artikuluduna da hala eta guztiz ere; ezin, beraz, txandakatze horrentzako patroï argirik atzeman.

ezti-eztia; 20
 çugan ereingo dan
 ene acia
 ez bildurtu, eze
 ezta gacia.

OHAR PALEOGRAFIKOAK:

izenb. Poema osoa testu nagusiaren ezkerrean idatzita dago, goiko ertzetik abiatzen den zutabe batean. **1** Goian, marra diagonal ez bereizita eta marra horizontal batez bereizita, bi lerro hauek daude: *Ene laztan ederr / on erechia*. Marra diagonal batek B9: 1-2 lerroak ere hartzen ditu. **9** eztidin] esk. *eztididin*. Duplografia delakoan eta *metri causa* zuzendu dugu. **14** eguia] esk. *egujja*.

Nola aipatu testu hau:

Lazarraga, Juan Perez, 2012 [c. 1602], “B9 – San Donato jauna...” [PDF], in G. Bilbao et al. (arg.), *Lazarraga eskuizkribua: edizioa eta azterketa (2.0)*, Vitoria-Gasteiz: UPV/EHU. Interneten eskuragarri: <<http://www.lazarraga.com>> [Kontsulta: uuuu/hh/ee].



Lan hau [Creative Commons-en baimen baten mende](https://creativecommons.org/licenses/by-sa/4.0/) dago

¹² *salvo*: ‘baizik (eta)’; eskuizkribuan bost bider agertzen da *salvo* hitza, eta horietarik lautan ‘baizik (eta)’ esan nahi du. *DAutek* ez du adiera hori bildu gaztelaniaz, ezta *OEhk* euskaraz ere. Gainera, behin euskarazko *baxe* kidearekin batera agertzen da: *ez eben gura inorc bervaric leguion, salvo baco chic egon baxe* (AL: 1143r). Beste hiru agerraldi hauek ere ‘baizik (eta)’ adiera dute: *Beguiratu бага çuc ni nor naxan, / salvo çu ceurori nungo çarean* (B3: 64-65), *Ni ez nagoçu esque fiaduric / ez urregorria ez laborea, / salvo çor deustaçun amorea* (B3: 73-75), *Çuretaco nic daucadan / guztia / ezta mincor, salvo / ezti-eztia* (B9: 17-20). Azkenik, bosgarren agerraldian ‘salbu, izan ezik’ adiera ohikoagoa dugu: *ez deraustae besteric ateraco, / salvo bay çaitudala amaetan* (B20: 71-72).